



KRISI EKONOMIKOA

Sustraiak eta alternatibak

- Etorkizun blokeatua Europako Batasunean
- Merkatuen diktadurari aurre egitea posible da
- Enpleguaren gainbehera eta alternatibak
- Islandia eta Irlanda, krisiaren aurrean bi eredu
- Espainiaren zorra: zenbatekoa da eta nola sortu da?
- Ekonomia ekologikoaren begirada

Hemeroteka: Michel Husson, Vicenç Navarro, Dani Gómez-Olivé, Eulalia Reguant, Joan Martinez Allier, Bibiana Medialdea...

Euroaren esklabotza edo...

Mendebaleko ekonomia kapitalistak bizi duen krisialdi ekonomiko sakona jorratzen da LARRUN honetan, 70eko petrolioaren krisitik finantza globalizazioak euroa paretaren kontra jarri duen arte. Hainbat autoreren artikulua eta liburu erabili dira horretarako, hauek beren zabalkunderako emandako CC lizentzia moldeak erabiliz. Batzuetan artikulua osorik itzuli dira, beste batzuetan hainbat atal eta zenbaitetan laburtu ere egin dira.

■ Egilea: Xabier Letona

Nola bilakatu zen 2007ko AEBetako finantza krisi bat, mundu mailako finantza eta ekonomi krisi larria? Erantzun bila atzera jo behar da ezinbestean eta 70eko hamarkadan munduko ekonomiak izan zuen bilakaera aztertu. Ertz askotako galdera da paragrafoaren hasieran aipatutakoa eta horretarako *Quienes son los mercados y como nos gobiernan*, Icaria-Asaco (*Zein diren merkatuak eta nola gobernatzen gaituzten*) liburura jo dugu. 100 orrialdera iristen ez den liburuxka da eta modu samur, pedagogiko eta kritikoa jorratzen ditu egungo krisiaren nondik norakoak. Luis Buendía Garciak sinatzen du liburuko kapitulu hau eta honakoa da laburpena:

“1973 eta 1979an petrolioaren prezioen igoerak eragin itzela izan zuen munduko ekonomian sortu zen krisialdi sakonean, baina baziren krisi sakona iragartzen ari ziren beste faktore batzuk ere. Funtsean Munduko II. Mundu Gerraren ondoren izandako hazkunde eredia agortua zen, errentagarritasunak behera egin zuen eta, ondorioz, ga-

rai bateko hazkunde ekonomiko oso txikia izan zen; langabeziak eta inflazioak oro har gora egiten zuten.

Egoera horri aurre egin eta errentagarritasun maila handiagoak finkatzera etorri zen gerora neoliberalismo moduan ezagutu den ekonomi erdia, arau ekonomikoen desegitean, pribatizazioetan eta merkatuen liberalizazioan oinarritua. Ronald Reagan eta Margaret Thatcher buru, AEB eta Erresuma Batua izan ziren eredu honen bul-tzagile nagusiak 80ko hamarkadaren hasieran eta oraindik ere indarrean dirau mundu osoan.

Prozesu horren guztiaren ezaugarri nagusieta-koa soldaten doikuntza izan da eta, haren eraginez, azken hiru hamarkadetan, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA, OCDE bere ingeleseko sigletan) herrialdeen nazio errentan, soldaten pisua 12 puntu jaitsi da. Ongi-zate estatuetan murrizketa erraldoiak izan dira,

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa · **Edukiak:** CC Aitortu-berdin partekatu

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Xabier Letona. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefona:** (00 34) 943 37 15 45 **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.308. zenbakiarekin banatua, 2012ko urtarrilaren 29an)



pribatizazioak ere bai, eta lan merkatuaren malgutzeak langileen eskubideen atzerakada itzela ekarri du oro har.

Horrekin guztiarekin batera, finantzen nagusitzea eragin duten bi arrazoi nagusi gertatu ziren: bat, finantza munduaren desarautze itzela bultzatu zen; bi, ohiko jardun ekonomikoaren errentagarritasunaren jaitsieraren ondorioz, kapitalak finantza esparrura egin zuen ihes, azkenean ekonomia guztia kontrolatu arte. Kapitalak esparru ugarritan hartu ohi du babes, eta horietan etengabeko burbuilak sortu izan ditu, horien artean ezagunenak etxebizitza eta higiezinak izan daitezke, baina ugari dira.

Azken hamarkadetan diruari era guztietako erraztasunak utzi zaizkio atzera-aurrera samur egiteko, eta horren ondorioetako bat izan da mundu guztian eman diren zorpetze prozesuak. Herrialde garatuetan kanpo zorraren arazoak pobretze ikaragarriak eragin ditu eta, oro har, herrialde garatuetan zorra ekonomia errealearen oso gaintetik hazi da, familia, enpresa, banku eta estatu osoen zorpetze prozesu larriak eraginez”.

Ondorioa: 1939ko krisialdiaren ondoren, kapitalismoak ezagutzen duen krisi latzena bizi duela munduko ekonomiak. Eta finantza merkatuek munduko ekonomia goitik behera menderatzen duten egoerara iritsi gara. Nortzuk dira, baina

“

Ez dago, beraz, beste irtenbiderik, Pedro Montes ekonomilari espainiarrak dioen legez: kaosa (euroan jarraitzea) eta hondamendiaren (eurotik ateratzea) artean hautatu behar da, azken honen ondoren tunelaren amaieran argia ikusten da eta



merkatuok? Funtsean honakoak: merkatal banku handiak, inbertsio bankuak, aseguru konpainiak, pentsio funtsak eta funts espekulatzaileak. Nagusiki lau aktibo mota saltzen dituzte: dibisak, akzioak, estatuetako bonoak eta produktu deribatuetak deitzen direnak. Iragan abenduko gaztelaniazko *Le Monde Diplomatique*-ko bere ohiko editorialean Ignacio Ramonetek bi datu ematen ditu irakurleak konparazio egin dezan: mundu mailako ekonomia errealak 45 bilioi euroko aberastasuna sortzen du urtero; denbora berean, planeta osoko finantzen eremuan merkatuek 3.450 bilioi euroko kapital mugimendua eragiten dute, hau da, ekonomia errealak sortzen duena 75 aldiz. “Ondorioa –dio Ramonetek–, boteretsua izanagatik ere (Italia munduko zortzigarren potentzia

ekonomikoa da), inongo estatuk ezin die eutsi merkatuen oldarraldiei hauek modu bateratuan erasotzea erabakitzen dutenean, eta hori da gertatzen ari dena mespretxuz PIIGS (txerriak, ingeleses) deitzen dituzten herrialde europarrekin: Portugal, Irlanda, Italia, Grecia eta Espainia”.

EB-KO 2011KO AZAROKO GAILURRA

Tximeletaren hegaldiak 2007ko AEBko *subprime*-n krisialdia erazi bilakatu du eurogunean eta 2001ean moneta bakarra munduko mirari ekonomiko gisa saldu bazen ere, hamar urte geroago hondarrean zulotik atera ezinean ari da moneta gaztea. Gailurrez gailur, 2011ko azaroaren 8an eta 9an Europako Batasunak hil ala biziko gailurra taularatu zuen Bruselan, merkatuak lasaitzeko helburu bakarrarekin eta gisa honetako mezua igorri guran: “Lasai egon zaitzete, euroak erantzun dezake eta zuen zorrak ordainduak izango dira, ez da berriz Greziarekin izandako zorraren berregituraketa molderik (bankuekin) izango. Eta hori segurtatzeko begira zer egiteko prest gauden”.

Europako Batasunak, azken mende Erdiko neurri gogorrenak jarri zituen indarrean merkatuok asetzeko: bat, estatuetako aurrekontuen defizita BPGren % 0,5era mugatzea eta arau hau konstituzioetara eramatea; bi, defizitak aurrekontuen % 3 gainditzen badu finantza zigor gogorrak; hiru, EBZren izaera ez ukitzea; lau, lan merkatuekiko malgutasun gomendioak ...

Zein izan zen “merkatuen” erantzuna? Euroaren kotizazioaren beherakada; arrisku tasen igoera, burtsen beherakadak, agentziek euroguneko herrialdeei kalifikazioa jaistea... Eta Bernard Casen-ek, urtarrileko *Le Monde Diplomatique*-n ondorio larriak ateratzen ditu euroarentzat:

“Arduradun politikoez eta agintariek ez dute europar moneta bakarraren egokitasunaz publikoki atzera egin nahi –Maastricht eta Lisboako Itunak bozkatu edo onetsi zituzten–, baina finan-

tza eragileek hoztasunez begiratzen diote aurrez aurre duten egoerari: jakin badakite euroa ezin dela izan aldi berean Alemania eta, besteren artean, Greziaren moneta, haien ekonomiak desberdinegiak dira. Egoerak debalutzea eskatzen dionean, Greziak ezin du, preso da moneta bakarraren uz-tarrarian. Orduan, ezkerreko joeren susmagarri ez den *Financial Times*-ek idazten duen moduan, 'Europako hegoaldeko herrialde zorpetuen berehalako irteera *barne debaluazioa* da, hau da, soldata eta jubilazioen beharpena, zergen igoera eta langabezi maila askoz handiagoa'. Baina, jarraitzen du City-ko egunkariak, 'egoera okertu ahala posible da hautesleak matxinatzea. Egungo baldintzetan, batek seriooki galde dezake Bruselako akordioa egunen batean indarrean jarri ahal izango den'".

EUROTIK ATERA?

Azken hilabeteetan bada irtenbideei buruzko galdera oso garrantzitsua: eta zer gertatuko da euroarekin? Azaroko gailurraren aurretik ate denak irekita ziren adituen ustez eta teorikoki gailurrak zalantzak uxatu bazituen ere, praktikan denak airean jarraitzen du, eta horren adibide bat gehiago da Frantziak eta Austriak zor kalifikazioan izan berri duten jaitsiera historikoa.

Baina, eta bera erori beharrean, eurotik ateratzea komeni bada? Ezkerreko ekonomilari zenbaiten ustez hori da egin behar dena, esate baterako, Pedro Montes, Costas Lapavistas, Jacques Sapir edo Mark Wisbrot ikusmolde honetakoak dira. Hauen iritsiz, funtsean, euroguneko ekonomia ahulak euroan preso daude eta ezin dituztenez bere aurrekontu eta moneta politikak nahi bezala bideratu, lehiakortasuna soldaten jaitsiera eta lan merkatuen malgutasunaren bidetik lortzera behartzen dituzte, honek dakarren miseria eta ongizate estatuaren atzerakada erraldoiarekin. Ez dago, beraz, beste irtenbiderik, Pedro Montes ekonomilari espainiarrak dioen legez: kaosa (euroan jarraitzea) eta hondamendiaren (eurotik ateratzea) artean hautatu behar da, azken honen ondoren tunelaren amaieran argia ikusten da eta.



Beste ekonomilari batzuen iritziz hori ez da bidea, eurotik ateratzeak merkatuen apatxen pean utziko bailituzke berau uzten duten herrialdeak, debaluazio handiekin, kapital ihes kontrolagaitzekin, finantza basamortuan eta merkatuen eraso izugarrien menpe

Beste ekonomilari batzuen iritziz hori ez da bidea, eurotik ateratzeak merkatuen apatxen pean utziko bailituzke eurogunetik ateratzen diren herrialdeak: debaluazio handiekin, kapital ihes kontrolagaitzekin, finantza basamortuan eta merkatuen eraso izugarrien menpe. Daniel Albarracin, Ozlem Onaran, Michel Husson, Eric Tuossaint, Vicenç Navarro edo Juan Torresen ustez, adibidez, eurotik ateratzeak ez litzuzke estatu ahulenen egoera konponduko, eta horren adibide da Erre-suma Batua bera, eurogunetik kanpo egonda ere, doikuntza ekonomiko estuak jasaten ari dena.

Hauen ustez, irtenbidea ezin da herrialde bakar batekoa izan, aterabide kooperatiboak edo internazionalistak bultzatu behar dira; herrialdeen konplizitatea bilatu behar da Bruselako zenbait neurri eta planei aurre egiteko, zenbait arauri uko egin ahal izateko. Finean, bide honetan barna, herrialdeek gisa honetako baldintza eta neurriak behar harko litzuzkete: aurrekontuen hersturaren aurka mobilizazio sozial handia; kapital ihesen aurrean neurriak hartzea; kapital erreteki zergak handitzea; finantza eragiketen arautzea eta tasazioa; edo, besteak beste, erreskatatutako bankuen nazionalizazioa. Hauen aburuz, Eurotik ateratzea ez da premiazkoena, eta noizbait egin behar harko balitz, beti ere bestelako Europaren eraikuntzaren bidean eman beharreko pausu gisa litzateke. ■



Islandia eta Irlanda: Krisiaren aurrean bi eredu

■ Iturria: *Vivir en deudocracia*

Islandia eta Irlandako krisi ekonomikoaren sus-traiak molde batekoak dira, irtenbideak ordea oso desberdinak. Islandian herritarren erreboltak zor-raren zati bat ez ordaintzea ekarri du eta Irlandan, aldiz, mobilizaziorik ez da izan apenas eta gobernuak EBk inposatutako doikuntza ekonomikoa onartu du. Ondorengo bi adibideak *Vivir en deudocracia*, Icaria-Asaco (*Deudokrazian biziz*) liburuaren lehen kapitulutik itzuliak daude, bertan Europako hainbat estatuk zorrarekiko bizi duten egoera deskribatzen da oso labur eta Griselda Piñero, Olivier Chantry eta Iolanda Fresnillok idatzia da.

ISLANDIA, MDF IRITSI ZEN, BAINA HERRIAK EZ DU BANKUENA ORDAINDU GURA

Islandiako hiru banku garrantzitsuenak (Kaupthing, Glitnir eta, batez ere, Icesave filiala medio, Landsbanki) 2003an pribatizatu ziren eta gogor jardun zuten finantza handien esparruan, batez ere funts oso espekulatzailak sortuz. 2008ko krisiaren leherketarekin bat, banku islandiarrak hondoratu egin ziren. Eta beren bankuak pribatizatu eta justu bost urte geroago, Islandiako Gobernuak berriz nazionalizatu behar izan zituen. Prozesua oso argia da: 2003aren aurretik banku horiek irabazi itzelak zituztenez pribatizatu behar ziren, baina hondoak jota geratu zirenetik Estatuak bereganatu egin zituen, haien zorrak ere bizkarreratuz, eta 2008an zor horiek herrialdearen BPG baino hamar bider handiagoak ziren. Hau da, zor

pribatuak nazionalizatu zituen. Eta hori egiteko Nazioarteko Diru Funtzarekin (NDF) zorpetu zen. 2008ko urriaren 4an NDFk erreskate plana iragarri zuen -2.100 milioi dolarreko mailegua- eta Islandiaren ekonomiaren “bizkortze programa”; azken honek babes sozialaren eta pentsioen aurka bete-betean jotzen zuten austeritate neurri oso gogorrak agintzen zituen, eta ondorioz ospitaleak itxi ziren, adibidez.

Aldi berean, Islandiako bankuetan -batez ere Icesaven- kontuak zituzten beren herritarrei kalte ordainak eman zizkieten gobernu britainiar eta holandarrak, eta ondoren operazioaren emaitza Islandiari pasatu zioten: 3.900 milioi euro. 2009aren bukaeran, Islandiako Legebiltzarrak “Icesave” legea onartu zuen, zeinaren arabera Erresuma Batua eta Holandari zor hori ordaindu behar zaiela aitortzen den. Baina mobilizazio handiek lege honetikiko erreferendum loteslea lortu zuten, eta 2010eko martxoaren 6an islandiarren %93k legea atzera bota zuen. Islandiako Gobernuak akordio berri bat gauzatu zuen Londres eta Hagarekin, baina berriz bota zen atzera 2011ko apirilaren 11n¹ egindako beste erreferendum batean. Lehengo aberastu ziren bankuen zorrak ordaintzeari uko egin diote herritarrek.

Herrialdeak ez zituen Icesaveko zorrak ordaindu, baina NDFren doikuntzaren menpe egon da 2011ko abuztura arte². Oraindik langabezia handia eta bizkortze ekonomiko geldoa izan arren,

1. Gaur egun, Holanda eta Erresuma Batuko gobernuak auzitegiataraz joz berreskuratu nahi dituzte dirutza hauek; aldi berean, EBko atea itxtearen mehatxu egiten diote.

NDFren ustez Islandiari inposatutako doikuntza programa arrakastatsua izan da. Ez du kontuan hartzen, ordea, Islandiak hobetu badu ez dela izan bere gomendioak jarraitzeagatik, baizik eta zorraren zati bat arbuiatuta, kapitalaren kontrola eta monetaren balio-galera eraginda, guztia NDFren dogma neoliberalaren aurkako norabidean.

“TIGRE ZELTA”-REN HONDORATZEA EDO NEOLIBERALISMOAREN PORROTA IRLANDAN

Irlanda, “Tigre Zelta”, neoliberalismoaren defen-datzaile amorratuenean ikur, enpresak erakartzeko zergak murriztean oinarritu zuen bere hazkunde ekonomikoa. Atzerriko inbertsioak langabeziari amaiera eman zioten eta 2007an %0ko defizita lortu zuen. Osasuntsu ziren diru kontu publikoak, baina burtsa, banku eta etxebizitza eremuetan burbuila larria zen haien atzean ezkutatuta. Bankuen likidezia hazkundeak familien kreditu galgarik gabea erraztu zuen, bereziki etxebizitza erosteko. Era horretan finantzatu zen higiezin burbuila handi bat, ekonomiaren motore garrantzitsuena bihurtuko zena.

2008ko finantza krisiaren leherketak, higiezin eta finantza burbuilaren desagitea ekarri zuen, airean egindako gazteluaren hondoratzea eraginez. Enpresek atak itxi zituzten edo herrialdetik alde egin zuten, langabeziak gora egin zuen (2008ko %0tik 2010eko hasierako %14ra). Familien ordainketa zailtasunak ikaragarri handitu ziren (krisiaren bezperetan, familien zorpetze maila BPGaren %90ekoa zen). Banku sistemaren porrota saihesteko, gobernuak bankuen gordailu guztien bermea bereganatu zuen, hau da, 480.000 milioi euroko diru kopurua (Irlandako BPGren hirukoitza). Higiezin burbuilaren finantzazioan puntan aritu zen Allied Irish Bank nazionalizatu zuen gobernuak, harengan 48.000 euro injektatuz (BPGren %30 inguru). Inbertsio eta inportazioen beherakadarekin, zerga sarreren murriztearekin eta ban-



Negu gorrienean ere, 2008ko larunbatetan milaka herritar biltzen ziren Reikiavikeko plaza nagusian.

kuen erreskateen gastu igoyerarekin defizita 2009ko %14tik 2010eko %32ra iragan zen. Egoera horrek guztiak EBk agindutakora makurrarazi zuen Irlandako Gobernu eta, ondorioz, EBk berak eta NDFk emandako 85.000 milioi euroko mailegua onartu zuen, baina diru hau batez ere finantza sistemaren erreskaterako zen eta ez herriaren beharretarako. Emandako “laguntza”, oinarrizko zerbitzu sozialei eraso egin eta kontsumoaren eroste ahalmena murrizten zuen austeritate planarekin lagundua zetorren hemen ere (soldata eta gizarte zerbitzuen murrizketak, eta BEZaren %21erainoko igoera); honek kontsumoa murriztu eta ekonomia moteltzen du. Zorrarri buruz hasi den lehen ikuskaritza herritarrak azaleratu duenez, 1980ko hamarkadaren amaierako 20.000 milioi eurotik 40.000 milioi euro eskasera hazi zen 2007an, eta harez geroztik 91.000 milioi eurora iritsi da, batez ere zor pribatuaren finantzazioa medio.

Garrantzitsua da ohartaraztea NDT, EB eta EBZ hirukoak ematen dituen “laguntza” horiek maileguak direla eta interes tasa altuan eskaintzen direla. Irlandaren kasuan interes tipoa %7koa izan zen NDFren maileguetan eta %6,05ekoa Euro-pakoetan. ■



2. Paul Krugman, “Iceland Exits”, 2011ko irailaren 1ean (<http://krugman.blogs.nytimes.com>).

Espainiako Estatuan, nola iritsi gara egoera honetara?

■ **Egileak: Dani Gomez-Olivé - Eulàlia Reguant. *Vivir en deudocracia* (Icaria/ASACO, 2011)**

Etengabe, Espainiak zor subiranoaren arazoa duela diogunean, zer esan nahi dugu? Egia al da Espainiako administrazio publikoa gehiegi zordundu dela? Espainiako zor arazoa, funtsean, Espainiako sektore pribatuak pilatu duen zorrean datza. Sektore pribatua ezin eutsizko neurrian zordundu da, eta, hein handi batean Estatuak bermatuta dagoenez, orain kolokan dagoena Espainiako ekonomia izatea eragin du.

ESPAINIAKO ZORRA ULERTZEN...

Ez da erraza Espainiako ekonomiaren zorraren zenbateko zehatza jakitea: Espainiako administrazio publikoek, enpresek, bankuek eta familiek zor dutena, herrialdeaz kanpo nahiz herrialde barruan. Izan ere, ez dakigu azken urteetan Espainiako finantza sektoreak zehazki zenbateko zorra metatu duen. Dena den, atzerriko bi erakundek egindako azterketak aintzat hartuz, 2009ko amaieran zorra, gutxienez, BPGren %400 ingurukoa zela jo dezakegu. Hau da, lau bider urte horretan Espainiako ekonomiak hazteko eta aberastasuna sortzeko izan zuen ahalmena. BPGren %400eko kalkulua ontzat emanda, 2011ko maiatzean zorra, guztira, 4,25 bilioi euro inguruan ibiliko zen.

Espainiako Bankuaren arabera, administrazio publikoek zor dutena 700.000 milioi euro baino gutxiago da, espainiar familiek zor dutena bilioira ez da iristen, eta enpresen zorra 1,3 bilioikoa da. Hortaz, Espainiako bankuek, beren artean zein nazioarteko hartzekodunekin (banku pribatu nahiz publikoekin, hala nola Europako Banku

Zentralarekin, edo funtsekin eta aseguruekin), 1,35 bilioi euro inguruko zorra dute.

Horrenbestez, administrazio publiko guztiak pilatu duten zorra Espainiako ekonomiari eskatzen zaionaren %16 besterik ez da. Hau da, zorraren gainerako %84a eragile pribatuek metatu dute. Beraz, bankuak (%32) eta finantzarioak ez diren enpresak (%31) dira Espainiako ekonomia gehiegi zordundua egotearen erantzule nagusiak.

Nolatan iritsi gara gehiegizko zorduntze egoera honetara? Euroa sartu zenetik, Alemaniaren hazkundera areagotu egin da, moneta batasuneko herrialde ahulenak zorduntzeari esker. Hau da, Alemaniak kapital soberakinak nonbait ezarri behar zituen, eta, euroa sartu zenean, kredituen bidez, bere ondasunak eta zerbitzuak EBko herrialde periferiko deritzenei esportatzea finantzatu zuen.

Espainiako eraikuntza enpresek eta sustatzailerik modu hain zentzugabean zorduntzea posible izan zen kreditu merkea, hein handi batean, zuzenean edo zeharka, Alemaniatik zetorrena, oso erraz lortzen zutelako, negozio hark sekula galararik izango ez zuen usteak itsututa. Hala, Alemaniako bankuek kredituak eman zizkieten zuzenean Espainiako adreiluaren negozioko enpresarioei, eta zeharka, dirua maileguan eman zieten espainiar bankuei, eta, modu horretan, horiek ere mozkin atera ahal izan zioten higiezin burbuilari. Horregatik, Espainiako bankuek chunka milaka hipoteka eta kreditu erraztasun

osoz eman zizkieten espainiar familia eta enpresei, batik bat eraikuntza sektorean.

Zor pribatu handi honen jatorrian, erantzukizuna (edo erantzukizunik eza) kredituak itzultzeko benetako ahalmenaren inolako kontrolik gabe maileguak eman zituztenei egotzi behar zaie. Horregatik, benetan ordaintzen ez bada, eta zorraren bolumenak hori gerta litekeela adierazten du, berme egokirik gabe kredituak eman zituzten atzerriko nahiz Espainiako hartzekodun pribatuei ere erantzukizuna berengain hartzeko eskatu behar zaie.



Zorraren aurkako mugimenduek zorraren ikuskaritza serioa aldarrikatzen dute, zor desegokia ez ordaintzeko.

ESPAINIAKO EKONOMIAK MUGAZ KANPO ZOR DUENA: GURE KANPO ZORRA

Espainiako Estatuak atzerriko hartzekodunekin duen zorra, 2011ko martxoaren 31n, 1,7 bilioi eurokoa zen, Espainiako BPGren % 70 inguru. Lehen egindako kalkuluen arabera, kopuru hori Espainiako ekonomiak zor duenaren ia erdia da. Gainerakoa hartzekodun espainiarrei zor zaie.

Zor publikoa kanpo zorraren %18 besterik ez da (307.000 milioi euro), eta sektore pribatuak, aldiz, gainerako %82a zor du (1,4 bilioi euro). Berritri ere, finantza entitateak dira zordun nagusiak, kanpo zorraren %44arekin (760.000 milioi euro, eta beste sektoreek gainerako %38 zor dute (662.000 milioi). Espainiako Bankuaren arabera, eragile pribatuek atzerrian Espainiako BPGren %140 zor dute, ekonomiaren geldialdi betean eta ia bost milioi langabaturekin. Horrek urduritasuna dakar nazioarteko merkatuan, zordun pribatuek kanpo zorra ez ordaintzeak atzerriko hartzekodunetan ere berehalako eragina izango bailuke.

Atzerriko presioen atzean nor dagoen jakiteko, zor horren atzerriko hartzekodunak zein banku diren jakin behar dugu. Nazioarteko Ordainketa Bankuak (NOB) 2011ko martxoan argitaratu zuen txostenaren arabera, Alemaniako bankuek kanpo zor garbiaren %22 zuten. Frantziako bankuek %20, AEBkoek %17, Britainia Handikoak %14, Italiakoek %4, eta EBko beste herrialde batzuetakoek %16. 2010eko maiatzean Merkelek, Sarkozyk, Obamak eta Europako Batzordeak Zapatero presidenteari egindako deiek eragina izan zuten, deia egin zuena “frakez jantzitako kobratzailea” baitzen.

Halaber, NOBen txostenak nabarmentzen duenez, Espainiak atzerriko bankuekin duen kanpo zor garbia (zor gordinari atzeritarrek hartzekodun espainiarrei zor dietena kenduta) 800.000 milioi eurokoa da (Espainiako BPGren %80, gutxi gorabehera). Zor horren %11 sektore publikoarena da eta, beraz, beste %89a (715.000 milioi inguru) sektore pribatuak zor du.

Ondorioz, ez ordaintzeko arriskua nagusiki sektore pribatuan dago, eta ez publikoan. Orduan, Espainiako eta nazioarteko hartzekodunak zergatik ari dira gobernua estutzen, erreformak, murrizketak eta pribatizazioak egin ditzan, gaitz guztien jatorria sektore publikoa bailitzan?

Gobernu zentrala bankuen zor pribatuaren zatirik handiena (edo zor osoa) bermatzeko prest agertu da, eta horrek merkatuak (hau da, Espainiako zorraren hartzekodunak) presioa finantza publikoei zuzentzea ekarri du, sekula baino onbideratuagoak egon daitezzen, azkenean, Estatuak Espainiako banku pribatuak erreskatatu behar baditu. ■



1848

■ **Egilea: Rafael Poch (Diario de Berlin bloga, 2011-11-20). *La Vanguardia***

Europa bere Batasuna desegiteko bidean da. Alemaniaren eskutik. Alde bakarreko zorroztasun politika adigogorraren eskutik, eta Europako Banku Zentralaren egitekoa berraztertzearen aurkako jarrera setatsu eta erreplikakorraren eskutik. Zein da seta dogmatiko monetarista horren arrazoia? Batetik, pentsamolde adigogorra eta, bestetik, finantza sektorearen zerbitzura jardutearen inertzia. Bigarren porrotera garamatzate.

Epe ertainean Europako krisia kontrolatzeko Merkelen “errezeta bikaina” are zentzugabeagoa da. Batasuneko itunen erreforma da, zorrak haztea eragiten duen eta hainbat herrialdetako ekonomia itotzen ari den diziplina instituzionalki blindatzeko erreforma. Lehenik ahulena erori ohi dira, baina, ondoren, esportatzaile indartsuenak ere eroriko dira, agertzen hasi den atzeraldiak kaltetuta. Ildo oker honek eskua sartzeko duen

“

Eta aurki Europan beste 1848 bat gerta daiteke: desegite kiribil kontrolaezin eta ulergaitza. Egoera baikorrean, herritarretan (eta ez enpresetan) oinarritutako europar proiektua berreraikitzean pentsa liteke. Egoera ezkorrenei dagokienez, Europako historia gerrazale eta oldarkorra ikusi besterik ez dago. Bere esperientziatik ikasiko al du Europak?

eskubidea Europa azkar desegiteko bide zuzena da.

2012an Europan atzeraldia izango dela eta munduan egoera hoztuko dela aurreikusten da, eta testuinguru horrek Europako herrien matxinada sustatuko du, dagoeneko agertzen hasi den Internazional berria. Hautatu ez ditugun kanpoko instituzioen erabaki okerrekin giro soziala doilortzen dute, eta herrien subiranotasunaren aldeko erreakzio nazionalista indartsua eragingo dute. 1848 bat.

1848ko Europan “herrien udaberriak” berrezarkuntza absolutistaren ordena kolokan jarri zuen. Agerian geratu zen Vienako Kongresuaren ordena eutsiezina zela. Orain “neoliberal” deritzen kapitalismoa dago, edo, agian, adjektiborik gabeko kapitalismoa. Ez dakigu zer etorriko den, baina bestelakoa izan beharko du. Sistema honen baitan, gizakiak eta planeta menderatzen dituen estres aztoragarria geroz eta jasangaitzagoa da.

Huts egin duen ordena absolutista batean, kasta txiki batek, %1ek, esaterako, gainerako %99ak bidegabe eta okertzat jotzen dituen erabakiak hartzen ditu. Boterea, ondasunak eta pribilegioak gutxiengo oso txiki baten eskutan dauden eta gainerakoak erabateko porrotera daramatzan ordena absolutista baten baitan bizi garen sentazioa kalean antzematen da. Eta gero eta biziagoa da gaurko Europan. Halaber, politikari eta instituzio nazionalen ezintasuna agerian geratu da. Bozkatzek ez dio axola: boterea eta erabakiak beste nonbait daude, hautetsi gabeko toki batean. Hori guztia azkenean behar soiltzat jo daitekeen matxinadarako gonbidapena da.



1848an hasi zen Frantzia Europar absolutismoarekin apurto zuen errebolta katea, "Europako udaberria" moduan ere ezagutzen dena. Goiko koadroan, Parisko udaletxearen aurrean 1848an izandako matxinadaren irudia.

1848an telegrafoak eta ferrokarrilak bezala, orain, informazio teknologia berriek, beren gehiegizko informazio nahasgarriarekin, berehalakotasun eroarekin eta ordenagailuko aktibismoarekin, badute egitekoa, baina oinarritzko edukiak eta bulkadak berberak dira: absolutismoa errefusatzea eta herritarrak aldarrikatzea.

Subjektu errepublikar berria aldatu egin da Europan. XIX. mendekoa baino kontinente askoz aberatsagoan eta demografikoki askoz zahartuagoan, guztiek dute zer galdua. Herritarren indarkeriarik ezak zentzu berria eta bere aldeko espazio asko dituela iradokitzen du horrek. Beste aldean, ezarritako sistema indarkeriaz baliatzeak sistemaren beraren aurka joka dezake.

Elementu hauetako asko ikusi ziren duela 20 urte, Sobietar Batasunak porrot egin zuenean,

erregimen zaharreko errezetek funtzionatu ez zutenean, sineste faltak eta egitura matxuratuak eraginda. Eta aurki Europan beste 1848 bat gerta daiteke: desegite kiribil kontrolaezin eta ulergaitza. Egoera baikorrenean, herritarretan (eta ez enpresetan) oinarritutako europar proiektua berreraikitzean pentsa liteke. Egoera ezkorreni dagokienez, Europako historia gerrazale eta oldarkorra ikusi besterik ez dago. Bere esperientziatik ikasiko al du Europak?

Eta Espainiak? Europako politika okerrenarekin bereziki otzana izateko zantzu guztiak dituen Madrilgo gobernura postfrankistak itzuli izanak Espainiako desegite kiribila bizkortuko du, eta pozik eza areagotu. Aurreikusten den 1848 hori gainditzea lortuko al dute lurralde batasunak eta monarkiak? ■



Hondorik gabeko krisia

■ **Egilea: Michel Husson.**

* Michel Husson, ekonomialaria da eta Frantziako Estatistika eta Ikasketa ekonomikoen Institutu Nazionalan ari da lanean. LCRko zuzendaritzakoa izandakoa. Artikulu originala: <http://hussonet.free.fr/575sfond.pdf>; gaztelaniaz, *Viento Sur* aldizkarian: <http://www.vientosur.info/documentos/sinfondo.pdf>

EUROPAKO GOBERNATZE BURGESAREN KRISIALDIA

Logikari segituz, kapitalismoaren aurkakoez beren ideia politikoak aurrera eramateko erabili behar luke krisialdia. Errealitatea, zoritxarrez, arras bestelakoa da: ezker erradikalak ez du benetan aurrera egiten; sozialdemokrazia eta eskuina, bozketaz bozketa, txandakatzen dira boterean; eskuin nazionalistaren gorakada nonahi agertzen da. Egoera horren jatorria ulertzeko, jakin behar da krisialdiaren izaera sistemikoa dela eta European eraikuntza zapuztu baten kontraesan espezifikoez konbinatzen dela.

Esan daiteke Europa eraikitzeke erabili den molde neoliberalak eta moneta bakarraren hau-tuak bumeran-efektua bat sortu dutela. Hori, nagusiki, soldaten diziplinarako tresna gisa pentsatua zen: Truke-tasarekin jokatu ezin zenez, soldata zenbait nazioaren ekonomiak monetagune berean elkarrekin bizi ahal izateko doikuntza-aldagai bakar bilakatu zen. Baina sistema ez zen koherentea, eta iheserako bi aldagai bazituen. Moneta bakarra izateak ekartzen du interes-tasen bat-etortzea nominala izatea, kasu horretan, beheranzkoa. Efectu gaiztoa honako hau zen orduan: bere prezioak gaizki kontrolatzen dituen herrialde batek interes-tasa erreala are apalagoa du, eta horrek zorpetzean

Michel Hussonen ustez kapitalismoak ezin izango du jada berdina aritu, sistema amildegiaren ertzean ikusten du. Hemen bere artikulu luzeagoaren bi atal itzuli ditugu: lehenean Europako burgesiak krisiaren baitan dituen kontraesanez buruz dihardu eta, bigarrenean, kapitalismoak krisi honetatik ateratzeko dituen oztopoei buruz.

oinarritua den hazkunde bati egiten dio mesede. Horrez gain, moneta bakarrak, definizioz, merkataritza-defizitak herrialde bateko monetaren gain duen itzulaldi-efektua desagerrarazten du. Espainia bi efektu horiez baliatu zen, eta hazkunde azkarra izan zuen, eta, horren ondorioz, langabeziaren atzerakada ikusgarria lortu zen. Baina hazkunde hori “boom” ekonomiko batean eta merkataritza-defizit izugarri batean oinarritua zen.

Horrek guztiak ahal bezala funtziona zezakeen, baina krisiak agerian utzi zituen, bortizki, modelo neoliberal europarraren inkoherentzia horiek. Egunez eguneko konponketetatik harago, Europa bidegurutze handi batean dago: edo urrats bat aurrera, zorren mutualizazioa berehala ahalbidetuko lukeen federalismorantz, edo eurogunearen leherketa gerta liteke. Europako burgesiak ez direnez bi aterabide horiek onartzeko prest, krisia oso sakona da, hainbestearino non ez daitekeen Europako burgesia batua denik esan ere, ez baita Europako kapitalik existitzen, ez eta Europako Estaturik ere.

Lau “aktore” bereiztekoak dira, sinpleki azaltzeko: multinazional handiak, bankuak, finantza-mundua eta klase menderatzaileetako gobernatuak ordezkarriak. Gai askotan erabat ados daude,



Angela Merkelek, batez ere, eta Nicolas Sarkozy zuzentzen dituzte EBko gobernuetako krisiaren hariak.

beren funtsezko klase-interesak tartean badaude: oraingo egoeran, guztien ikusmoldea da egoera uzkaitezko krisiaz baliatuz xok-terapia bat aplikatzea. Krisia atzerakada soziala urrunago eramateko aukera da: gastu publikoak apaltzea, soldadak izoztea, erretiroen kontraerreformak egitea, eta abar.

Baina interesezko komunitate hori ez dago krisiak areagotzen dituen barne-kontraesanetatik at. Elkarrri buru egiten dioten bi ardatzen arabera azter daitezke; alde batetik, Estatuak eta kapitalak eta, bestetik, finantza-mundua, kapitalismoaren beste zatien aurkaria. Klase menderatzaileen ikuspegiaren arabera, oraingo egoerak kontraesan horiek kudeatzeko gero eta ezintasun handiagoa du ezaugarri.

Zor burujabeen krisia lehen kontraesanaren erakusle da. Kapitala, orokorki, ez da jada herri bateko edo besteko egoeraz kezkatzen, bere erren-

tagarritasuna eta merkatu-partaidetzak baizik ez ditu kezka nagusitzat. Alabaina, ez salbideek ez eta ere ekoizpen-kateek ez dituzte multinazionalak lurralde jakin bati lotzen, baina, zailtasun-egoerak agertzean, beren erreferentziazko Estatuari buruz itzultzen dira. Kapitalismo mundializatuan, Estatuaren kontrola errentagarritasunerako baldintza orokorrak segurtatzera mugatzen da, gero eta gehiagotan. Hala, Carlos Ghosnek, Renault enpresako lehendakari eta zuzendari nagusiak, hauxe zioen *Financial Times*-i egindako adierazpenean (2010eko ekainaren 2an): “Renault ez da dagoneko frantses ekoizlea”; “Renault frantsesa da; Renaultek bere oinarria Frantzia du” (Europe 1, 2010eko ekainaren 13an). Hain zuzen ere, zailtasunetan zirenean, frantses Estatuak auto-ekoizleei aurreratu zizkien behar bezainbeste funts. Ez gara, jada, Boukharinek duela kasik mende bat deskribatzen zuen kapitalismo mundializatu batean, hau da, Estatuak eta kapitalak gainezar zitezkeeneko garaian.



Egunez eguneko konponketetarik harago, Europa bidegurutze handi batean dago: edo urrats bat aurrera, zorren mutualizazioa berehala ahalbidetuko lukeen federalismorantz, edo eurogunearen leherketa gerta liteke. Europako burgesiak ez direnez bi aterabide horiek onartzeko prest, krisia oso sakona da, hainbestearino non ez daitekeen Europako burgesia batua denik esan ere”

Berritasun handia da multinazionalen zerumuga mundiala dela eta ez dela eremu nazionalera mugatua, ez eta Europakora ere. Boukharinek, garai hartan, “goi-protektionismo” bat aipatzen zuen, harentzat “kartelen ekonomia-politikaren estatu mailako formula” zena. Gauzak aldatu egin dira, eta ez daiteke haren kontra kexatu kapitalismoaren eraldaketak aurreikusi ez zituelako. “Desmundializazioaren” aldarrikatzaileek ez dute hark bezalako iritzirik; izan ere, merkataritza-protektionismoa proposatzen dute, produkzioa mundu osoan hedatua izango ez balitz bezala. Egoera berri horrek asimetria sakona sortzen du: Estatuak “beren” kapitalen zerbitzuko dira, baina horiek barne-merkataritza dinamikotik libratu dira. Bizkitartean, Estatuak, hala ere, herrialde bakoitzaren barruan, klaseen arteko harremanak kudeatzen segitu behar dute. Beren eginkizuna da, besteak beste, krisia haien herritarrei ordainaraztea.

Bigarren kontraesana da finantza-munduak, bankuek eta Estatuak elkarri aurka egiten diotela. Hori indar berezi batez agertzen da gaur egun, finantza-mundua herrialdeetako zorren kontra espekulatzen ari baita, zeharka, eta, horren ondorioz, bankuen porrot egiteko arriskua eragiten dute, horiek zorren zati handi bat daukatelako. Hiru

aktoreen arteko mugak (bankuenak, finantza-munduarenak, Estatuarenak), bistan denez, zehaztugabeak dira eta, batez ere, lausotasun handikoak. Baina interes-gatazka horiek berak daude izugarri ezegonkorra den egoeraren oinarrian. Europako burgesien baitan gertatzen diren eztabaidak burgesiaren “gobernatze”-krisi sakonaren erakusle dira. Eztabaida horiek Greziako zorren balizko makur baten ondorioek sortzen duten kezkan (ez bada izuan) dute funtsa. Gobernuak, senari jarraituz, aurrera doaz, bi helbururekin: krisiaren ordainagiria beren herritarrei pagaraztea, baina, halaber, beren bankuek porrot egitea saihestea.

Arriskua eztanda bikoitza da. Greziako zorren makur saihestezinengatik, bankuak galerak izateko mehatxupearan dira, eta, galera horiek berak neurtzeko, zailtasunak dituzte. Gaur egun, bankuetako ekonomisten zati handi bat barneko estres-testak lantzen ari da, eta eder egiteko baizik balio ez duten simulazio ofizialak baino errealtagoak izaten dira test horiek. Emaitzak aski kezagarriak dira, hainbestearino non banku zenbaitetik, txokea aurrez ikusita, Greziako zorren kontrolpeko berregituraketa bat onartu duten hurrengo ordaintze-eperaino. Baina Europako Banku Zentralak defendatzen duen ikusmoldeak erabat ukatzen du ikuspegi hori. Horren kezka da beste herrialde ahuldu batzuetara heda dadin, Greziako zorra baino ondorio askoz larriagoekin. Aburu dogmatikoaren helburua, batez ere, denbora irabaztea da, “finantza-merkatuak lasaitzeko”, zailtasunetan diren herrialdeetan egoera hobetuko delakoan.

Gauza bat seguru da, hain zuzen: inork ez dezake inolaz ere pentsatu Greziak bere zorra ordaintzeko ahalmena izan lezakeenik. *Bloomberg*-eko editorial-egileak honela dio: “Greziak beste salbamendu-plan bat lortuko balu eta bere ekonomia berriz abiatuko balitz ere, gobernuak, hiru hamarkadaz, Barne Produktu Gordinaren %5eko soberakin primarioa libratu behar luke –zorren zerbitzutik kanpo– euroguneko arauak baimentzen duten BPGaren %60ko hein maximora apal-

tzeko. Horrelako balentria fiskala oso arraroa da, baita 5 urteko epean ere, are gehiago Greziaren kasuan”. Azken salbamendu-planak oharpen hori bazter batean baizik ere du erakusten.

(...)

ETORKIZUN BUXATUA

Atzeraldi guztiek tentsioak eta kontraesanak sortzen dituzte, eta horiek agerian gelditzen dira hazkundera berrabiaraztea xede duen ekonomia-politika gidatzeko moduan. Berrikitan gertatutako “atzerapen handiaren” kasuan egia da, bereziki, baina azken hori krisialdi sistemiko baten sintoma da: Kapitalismoak ezin izango du inoiz lehen bezala funtzionatu. Ezinezkoa da *business as usual*-era edo “Hogeita hamar oparotako” kapitalismo oparora itzultzea.

Krisialdiak ekarritako garaiak ezjakintasun sakonak ditu ezaugarri. Bere erara hortik ateratzeko proiektuan, kapitalismoak lau oztopori egin behar die aurre; aurreko artikuluko batean, “dilema” izena eman zitzaizen oztopo horiei:

1. banaketa-dilema: Etekina berrezartzeak hazkunderari aurka egiten dio, eta aberastasunen banaketa desorekatua eragin lezake, berriz, eta, hala ere, hori krisialdiaren arrazoi sakon bat da.

2. aurrekontu-dilema: Defizit publikoen murrizteak gastu publikoen apaltzea dakar ondorioztat, jendartearenganako efektuak aipatu gabe, atzeraldi-joerak areagotuko baititu. “Zuhurtasun neurriek susperraldiaren abiadura gutxitu lezaketek”, Nazio Batuen Erakundeak berrikitan plazaratutako txosten batek dioenez...

3. Europako dilema: Arbuio hirukoitza hori dela eta —zor publikoen mutualizazioarena, bankuen benetako ekarpen batena eta finantza-munduari eustearena—, eurogunearen leherketa-arriskua ez da baztertu behar, bata bestearen ondoko akatsen ondotik.



Mobilizazio soziala modu bakarra da kapitalismoa aterabiderik gabeko egoera horretarik aterazteko saiakerari oztopo egiteko, non gizartearen erregresioa are gehiago handitzen ari baita eta herrialdeen arteko tentsioak muturreraino eramaten ari baitira”

4. mundializazio-dilema: Desoreken murriztea ez daiteke munduko hazkunderaren abiadura gutxitzekotan baizik lortu. Nazio Batuen Erakundearen txostenean, jadanik esaten da “munduaren susperraldia ekonomia garatuek balaztatu dutela”, eta azpimarratzen da badela arriskua “koordinaziorik gabeko munduko ekonomiaren berrorrekatzeko”.

Lau dilemak elkarri estuki lotuta daude; kapitalismoaren “erregulazio kaotikoa” erakustera ematen dute, kapitalismoak ez baitu gaitasunik kontraesan handiko interesekin bateragarria litzatekeen ibilbide iraunkor bat marrazteko krisialditik ateratzeko. Mobilizazio soziala modu bakarra da kapitalismoa aterabiderik gabeko egoera horretarik aterazteko saiakerari oztopo egiteko, non gizartearen erregresioa are gehiago handitzen ari baita eta herrialdeen arteko tentsioak muturreraino eramaten ari baitira. Baina horrek ere badakar mobilizazioak ikusmolde alternatiboetan oinarritu behar izatea. Borroka-maila handia da mobilizazio horietarako baldintza. Beraz, eginkizun historikoa, gaur egun, ezker erradikaleko indarrak batzean datza, austeritatearen kontrako erresistentziaren eta noraezean dabilen sistema baten logikarekin apurtuko luketen helburuen arteko zaldaina izan beharko duen programa baten inguruan. ■



Posible al da merkatuen diktadurari aurre egitea?

■ **Egilea: Bibiana Medialdea García.**

Quiénes son los mercados y cómo nos gobiernan (10. kapitulua, Icaria/ASACO, 2011).

Ezinezkotzat jo ohi bada ere, badago maniobra-rako aukera krisialdiaren konponbidea finantza botereen (“merkatuen”) mendean jarri gabe kudeatzeko. Baina horretarako, ezinbestekoa litzateke Europar Batasunean ezarritako zenbait murrizketa (Egonkortasun eta Hazkunde Ituna, eta Euroaren Ituna) desobeditzea. Desobeditze horrek ez du zertan esan nahi automatikoki moneta komunitetik irtetea. Baina, krisialdiaren konponbidea modu demokratiko eta sozialean kudeatu nahi bada, ezinbestekoa da azken hamarkadatan Europako herritarrei kendu zaien subiranotasuna neurri batean berreskuratzen hastea.

Lehenik, erabaki ekonomikoak hartzeko politikaren zentraltasuna berreskuratzea lehentasunezkoa da: gure baliabideen kudeaketa ekonomikoa prozedura demokratikoen bidez egiten dela bermatu behar da. Krisia kudeatzeko beste modurik ezin da martxan jarri, aurrez “merkatuen diktadura” delakoari aurre egin gabe. Horretarako, estatuetakoa nahiz Europako instituzioek benetan demokratikoak izan behar dute, eta gehiengo sozialaren zerbitzura jarduteko bokatzea izan behar dute, bankuen eta gainerako finantza inbertitzaileen alde jokatu ordez. Krisialditik irteteko jarraibideen oinarritzko elementuek herritarren babesa izan behar dute. Defizit publikoaren gehienezko mugari maila konstituzionala ematea muturreko kasua da. Alderdi politikoez ezin dituzte onartu herritarren gaurko eta etorkizuneko bizi baldintzei gogor eragiten dieten neurriak, herritarrek bozkatzeko aukera izan zuten

programan ez zeuden neurriak. Kasu horietan, kontsulta lotesleak antolatzeke eskatu behar da, herritarrek neurriak babesten dituztela ziurtatzeko. Esaterako, Islandiak oinarritzko ekonomia gaie-tan erabakitzeke eskubidea eska daitekeela erakutsi du.

Finantza botereen bidegabeko autoritatetik libratzeke ezinbesteko beste baldintza estatuak inbertitzaile pribatuen mendetik aterako dituen finantzazio mekanismoak lortzea da. Estatuak baliabide eskergak mobiliza ditzake; arazoa da azken urteetan ahalmen horri uko egin diola.

Eta uko egin dio kontzesioak eginez herritar talde aberatsenei –ordaintzen zituzten zergak nabarmen jaitsi dituzte– eta bankuei –izugarri aberasten ari dira estatuak finantzatuz, instituzio publiko batek (Europako Banku Zentralak) ematen dizkien baliabideei esker–. Zerga politika sendo eta progresiboa, kapitalaren errentak (gure herrialdean lan errentak baino zerga gutxiago ditu) gehiago zergapetuko dituen politika berreskuratzek, eta iruzurraren nahiz zerga paradisuen aurkako borroka irmo eta eraginkorrak, Estatuaren eskura dauden baliabideak asko haztea eragingo luke. Horren bidez, zorpetzeko beharra murriztuko litzateke eta, hortaz, finantza merkatuekin egun duen mendekotasuna.

Baliabide publikoak mobilizatzeko ahalmena berreskuratzea bereziki premiazkoa da egungo testuinguruan, ezinbestekoa baita Estatuak ondo



Munduko burtsarik indartsuena den New Yorkeko burtsaren irudi bat.

bideratutako gastu programa sendoak abiaraztea. Batetik, baliabide publiko horiek herritar behar-tsuengana krisiak eragiten dituen kalte sozialak arintzera bideratu beharko lirateke. Eta, bestetik, inbertsio publikoa ezinbestekoa da ekonomia suspertzeko eta enplegua sortzeko, gure ekoizpen eredia gizarte erabilgarritasun eta ingurumen iraunkortasun printzipioen bidez bideratuz.

Monetaren kudeaketak ere subiranotasun ekonomikoaren alde jokatu beharko luke. Herritarrekiko erantzukizunak beren gain hartuko dituzten banku zentralak behar dira, hartzekodunen (bankuen eta zorra duten beste eragile batzuen) ordezkari gisa jarduteari utziko diotenak. Estatuek behar dutenean, EBZk beren zor publikoa luzatu gabe eta interes tasa mesedegarriak ezarriz erosi beharko luke (egungo estatutuek diotenaren aurka), interes tasa murriztu horiek banku pribatuei eskaini ordez, banku horiek estatuak askoz

kostu handiagoan finantzatzuz aberasten baitira. Banku zentral arduratsu batek ez du finantza aktiboen errentagarritasun handia bermatu behar —horixe egiten du diru merkea bankuei, eta ez estatuei, utzita—, jarduera ekonomikoa suspertzen eta enplegua sortzen lagunduko duten moneta eta finantza baldintzak ezarri baizik.

Finantza arloan ere neurri garrantzitsuak hartu beharko lirateke, kudeaketa ekonomiko demokratiko eta eraginkorrerako maniobra tartea hantzen laguntzeko. Lehenik, banku eta finantza arautze zorrotza behar da. Finantza produktuei buruzko eta eragileek burutu ditzaketan eragike-tei buruzko arauak oso zehatzak izan behar dute (“itzaleko banka” deritzona, inolako ikuskatzerik ez duten finantza jarduerak deuseztatzeko), eta, hala, espekulazio jarduerak edo, besterik gabe, arriskutsuegiak direnak saihestuko lirateke; gehiegizko arriskuek eragindako galerak, azkenean, he-



Baina horretarako, ezinbestekoa litzateke EBn ezarritako zenbait murrizketa (Egonkortasun eta Hazkunde Ituna, eta Euroaren Ituna) desobeditzea. Desobeditze horrek ez du zertan esan nahi automatikoki moneta komunetik irtetea. Baina, krisialdiaren konponbidea modu demokratiko eta sozialean kudeatu nahi bada, ezinbestekoa da azken hamarkadatan Europako herritarrei kendu zaien subiranotasuna neurri batean berreskuratzen hastea

rritar guztiengan sozializatzen direla baieztatu da. Abian dagoen pribatizazio prozesuaren aurka, banka publikoak bere tokia berreskuratzea funtsezkoa da, epe luzerako eta gizarte erabilgarritasunerako irizpideekin jarduteko gai izan behar du, eta ekoizpen eredia aldatzeko eta enplegua sortzeko lehentasunekoak diren jarduera ekonomikoari arrazoizko maileguak eskaini behar dizkie. Horrek, estatuen finantza ahalmen handiagoarekin batera, finantza sektore pribatuaren aurrean autonomia lortzen lagunduko luke. Azkenik, kapital mugimenduak, finantza merkatuen artekoak nahiz herrialdeen artekoak, kontrolatzeko neurriak nahitaezkoak dira kapital horiek finantzatzen dituzten proiektuekiko gutxieneko konpromisoa izango dutela bermatzeko eta espekulazio jokaldiak saihesteko.

Merkatuen diktadura gaindiezina dela argudiatu ohi da. Herrialde batek espekulazioa oztopatuko luketen kapital kontrolak edo langileen aldeko lan araudia ezarriko balitu, inbertitzaileek herrialdea utzi eta jomuga erakargarriagoak aukeratuko lituzketela esaten da. Aitzitik, EBk egoera

egokia eskaintzen du horrelako neurriak hartzeko. Gogoan izan EBko herrialdeen kanpo merkatari-tzaren ia % 70 Europako herrialdeetara bideratuta dagoela. Beraz, EBko herrialdeei eragiten dien kanpo lehia, nagusiki, kontinentean bertan dago. Horregatik, kideen arteko lankidetzan oinarritutako europar espazio ekonomikoa guztiz bideragarria litzateke: beheranzko joera duten lehien ordez —zerga beheratzeak, soldata murrizketak, erretiro adina luzatzea, finantza kapitalen kontrolik eza eta abar—, batera eta modu koordinatuan funtzionatuko duen espazioak, alboko herrialdearekiko epe laburreko lehia suntsitzailean oinarritzen ez den espazioak, guztiz aurkakoak diren neurriak ezarri ahal izango lituzke.

Zehazki, EBko herrialdeen arteko benetako integrazio ekonomikoa goranzko joera duen eta bat datorren lan eta gizarte eskubide eredia ezartzea ahalbidetuko luke. Langabeziaren arazoari dagokionez, lanaldia murriztu (soldatak murriztu gabe) eta lan bizitza laburtu liteke, eta, hala, orain dauden lanpostuak (eta irabaziak) modu bidezkoagoan banatuko lirateke. Gainera, ordaindutako lanaren banaketa orekatuagoak, ordaintzen ez diren lanen banaketa bidezkoagoa ekarriko luke (etxeko eta zainketa lanak). Gutxieneko soldatak nahikoa izan behar du bizi maila duina bermatzeko, eta, horregatik, Europako mailara iritsi behar du, maila altuenak erreferentziazat hartuz.

Erabaki ekonomikoa hartzeko ahalmena berreskuratuta eta egun EBko herrialdeetan indarrean dagoen soldaten lehia mekanismoa indargabetuta, hiru hamarkadatan indarrean egon den eta krisialdian sakondu den soldaten doitze prozesua aldatzea posible litzateke. Hala, krisiaren kostuak modu zuzenagoan banatuko lirateke, errudunei egokituko litzaizkieke, eta langileek erosteko ahalmena eta azkenaldian murriztutako eskubide ekonomiko nahiz sozialak berreskuratuko lituzkete. Hauek dira ikuspegi ekonomikotik benetan demokratikoa izango den gizarterantz aurrera egingeko abiapuntuak. ■



Zer erakusten du lan merkatuen errealitateak?

■ **Egileak:** Vicenç Navarro, Juan Torres López eta Alberto Garzón Espinosa.

* Hirurak ekonomialari ezagunak dira Espainian eta 2011n estatuan oihartzun handia izan duen *Hay alternativas. Propuestas para crear empleo y bienestar social en España*. (*Bada alternatibarik. Espainian enplegua eta ongizate soziala sortzeko proposamenak*) argitaratu zuten. Interneten doan da PDFn toki ugarian, adibidez hemen: <http://www.rebellion.org/docs/138182.pdf>.

Neoliberalak lan merkatua soldata nahikoa ba-
xuk bermatu hutsarekin lanpostu kopuru muga-
gabea sor dezakeen mekanismo perfektu eta uto-
pikotzat jotzera bultzatzen dituzten begietako
ideologikoak albo batera uzten baditugu eta, al-
derantziz, errealitateari, merkatu horietan benetan
gertatzen denari aurreiritzirik gabe begiratzen ba-
diogu, lanpostuak sortzen laguntzeko aintzat hartu
behar diren funtsezko giltzarriak aurki ditzakegu.

Ildo horretan, irakaspen garrantzitsuenak ez
dira ideia gintza neoliberaletatik datozenak, lan
merkatuen benetako funtzionamenduaren azter-
ketak dakartzanak baizik. Irakasten duen lehen
gauza enplegua sortzeko bidea lan merkatu eta ha-
rremanak oraindik eta gehiago liberalizatzea ez
dela da. Ez da egia lan merkatuak gehiago desa-
rautzeko eta malgutzeko erreformak egin diren to-
kietan enplegu gehien sortzea eta langabezia
gehien murriztea lortu denik.

Funtsezko bigarren irakaspena hau da: langi-
leak babesten dituzten eta, logikoki, lanaren kos-
tuak handitzen dituzten zenbait araudik eta insti-
tuzioek zurruntasun handiagoa eragin dezaketela
frogar litekeen arren, enpleguan duten eragina ezin

**Testu hau *Hay alternativas. Propuestas para crear empleo y bienestar social en España* libu-
rutik ateratakoa da. Enplegua sortzeko behar
diren baldintzez aritzen den IV. kapituluaren
azpiatal bat da eta neoliberalismoak enple-
guari buruz duen doktrina desegokia dela az-
pimarratzen du.**

da erabakigarritzat jo, horiekin batera, beti bai-
taude aldagai makroekonomikoak, eta horiek era-
gin handiagoa dutela frogatu dute azken ikerlanek.

Hirugarren irakaspenari dagokionez, lan erre-
formek lan kostua murriztea, lan arauak babes
estandarrak murriztuta lasaitzea eta lanaren pre-
kariatatea handitzea eragin dute, eta horrek aldi
baterako enplegua eta eskatu gabe murriztutako
lanaldia, lan diskriminazioa, segurtasunik eza eta
asegabetasuna areagotzen ditu.

Laugarrenez, enplegua sortzea baldintza ma-
kroekonomiko egokiak izateak mugatzen dutela
pentsatzeko nahikoa froga badugu, ez duela soi-
lik BPGren bidez neurtutako jardueren hazkun-
deak baldintzatzen. Eta inolako arazorik gabe
egiazatu ahal izan da azken urteetan enplegua
sortzeko argi eta garbi negatiboak ziren egoerak
eta politikak ezarri direla.

Besteak beste:

1. Finantza errenten pribilegioa: jarduera pro-
duktiboaren baliabideak beretu dituzte, eta en-
presa produktiboek lanpostuak sor ditzaten be-



harrezkoak diren baliabideak kendu dituzte. Arazoa krisialdian bereziki larritu da, dakigunez, finantzazioa ohiz kanpo murriztu delako eta, ondorioz, enpresek ezin dutelako enplegua sortu.

2. Politika deflazionisten nagusitasuna: soldatak eta gastuak murriztera bideratuta daude, inflazioa eragiten dutela aitzaki, eta horrek enpresa txiki eta ertainei zuzendutako eskaera eraginkorra etengabe murriztea eragin du.

3. Gastu soziala murriztea: ongizate zerbitzuetan lanpostuak sortzea eragotzi.

4. Enpresa handiek merkatuan zuten boterea handitu da: batere lehiakorak ez diren prezioak eta lanpostu gehien sorrarazten dituzten enpresa txiki nahiz ertainei kalte egiten dieten kostuak ezarri ahal izan dituzte.

Bosgarrenez, enplegua sortzearen eta suntsitzearen azterketak adierazten duenez, biak lanaldia eta produktibitate irabazien banaketa kudeatzeko moduaren menpe daude, hau da, lanaren eta kapitalaren arteko errentaren banaketa kudeatzeko moduaren menpe. Horrek esan nahi lanpostuak suntsitzea saihestu eta enplegua sortzea sustatu daitekeela, lanaldia murriztuta, eta alderantziz. Krisia zenbat eta larriagoa izan, lanaldia orduan eta gehiago handituz gero, Espainian gertatu bezala, lanpostu gehiago galduko dira. Lanaldia murriztuz gero, Alemanian bezala, enpleguari eusten zaio.

Azkenik, enplegu bolumena handitzea edo txikitzea ere eredu produktiboaren, baliabideen lehentasunezko jomugen eta errentaren banaketa ereduaren mende dagoela dakigu. Azken batean, ekonomia baten enplegu eta langabezia mailak ez

daude soilik egoera ekonomikoaren mende, egoera politikoaren araberrakoa ere badira. Eta, ondorioz, baliabideen erabilerari buruzko erabakiak hartzeko orduan, gizarte taldeek duten boterearen eta eraginaren mende daude.

Horregatik, nagusien elkarte eta kapitalaren aldeko errentaren banaketaren alde egiten duten politikari nahiz ekonomistek sindikatuen aurka egiten dute beti; sindikatuak negoziazioan duten tokia murriztu nahi dute, negoziazioa kolektiboa izatea eragotzi nahi dute, banan-banan edo ahalik eta modu zentralizatuenean egiteko, langileen aldeko lana ahulagoa izan dadin, eta, oro har, soldatapekoak babesteko ezin eztabaidatzeko eskubide ezartzen dituzten derrigorrezko arauak desagerrarazten ahalegintzen dira.

Eta horregatik aipatu ditugun politika makroekonomikoa ezar daitezkeen eskatzen dute. Berez, jakina da langabezia eragingo dutela, langabezia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta errazagoa izango baita nagusiei komeni zaizkien lan eta soldata baldintzak langileei ezartzea.

Jakina, horrek ez du esan nahi enpresario eta enpresa guztiek ikuspegi mugatu horrekin jokatzeko dutenik (gutxi batzuk irabazten saiatzen direnean, azkenean, enpresario guztiek galtzen baitute). Enpresario asko berritzen saiatzen dira, langileekin etekin produktiboen banaketa adosten, inor pobretu ez dadin eta enpresaren etorkizuna ere arriskuan jarri gabe; parte-hartzea eta guztien lan baldintzak bultzatzen dituzte, bazterkeria eta desoreka saihesten laguntzen dute; etekinak lortzeak, ezinbestean, ingurumenarekiko, gizarte justiziarekiko eta talde interesekiko errespetuarekin bateragarria izan behar duela ulertzen dute, eta badakite enpresa baten arrakasta ez datzala “kolpe” hutsetan, giza beharrak asetzeko aberastasuna eta ahalik eta enplegu bolumenik handiena eragingo dituzten proiektu komunak martxan jartzean baizik.

Hortaz, enplegua sortzeko ezinbestekoa da horrelako enpresa jokaerak eta jabetza ereduak

“

Horrek esan nahi du lanpostuak suntsitzea saihestu eta enplegua sortzea sustatu daitekeela, lanaldia murriztuta, eta alderantziz. Krisia zenbat eta larriagoa izan, lanaldia orduan eta gehiago handituz gero, Espainian gertatu bezala, lanpostu gehiago galduko dira. Lanaldia murriztuz gero, Alemanian bezala, enpleguari eusten zaio”

sustatzea, enpresa txiki eta ertainen, izaera sozial eta kooperatiboa duten enpresen nahiz lan sozietateen mesedetan, enpresa jarduera ulertzeko modu hori negoziatioetan oztupo izan ordez, abantaila izateko baldintzak sortuz. Egiaz, krisialdiari lanpostu gutxien galduta erantzun dioten enpresa eraginkorrenetako batzuk soldaten arteko alde txikia, soldata handienaren eta txikienaren arteko 3/1eko aldea duten langile kooperatibak izan dira. Aldiz, Ibex-35eko enpresa handiek enplegu gehiago suntsitzen dute, eta soldaten arteko aldea 20/1ekoa izan daiteke. Arrasate horren adibide da, eta esan daiteke, Espainiako enpresa gehienek Arrasatekoek bezala jokatu izan balute, gure langabezia maila egungoa baino askoz txikiagoa izango zela.

Bestalde, garrantzitsua da Europa iparraldeko herrialdeetan oso zabaldua dagoen printzipioa berreskuratzea (herrialde horietan indar aurrerakoiak nagusi izan dira erakunde politikoetan): enplegua sortzeko erantzukizuna Estatuak du, enpresa pribatuek nahikoa sortzen ez dutenean. Krisialdi garaioetan sekulako garrantzia duen printzipioa da, une honetan (Espainian egiten ari denaren kontrara) Estatuak oraindik eta konpromiso handiagoa izan beharko bailuke lanpostuak eratzeko. ■



Krisialdi ekonomikoa, ekonomia ekologikoaren ikuspegitik

■ **Iturria:** Joan Martinez-Alier

Testu hau egileak *Ecologia politica* aldizkarian 2008ko abenduan argitaratutako artikulua-
ren laburpena da, eta ohiko ekonomila-
riek aztertzen ez duten begiradarekin
jorratzen du krisia. Parametro ekologikoak
ohiko ekonomia neurgailuetan txertatzeko
premia aldarrikatzen du eta krisiak horreta-
rako aukera paregabea eskaintzen duela
diosku. Hiru urte geroago erabateko gaur-
kotasuna du. Nagore Irazustabarrenak egin
du laburpena.

EKONOMIAREN HIRU SOLAIRUAK

Ekonomiak hiru maila ditu. Goian finantza maila dago, sektore pribatuari edo estatuari maileguak emanez haz daitekeena, batzuetan maileguak itzultzeko inolako bermerik gabe, egungo krisian bezala. Finantza sistemak etorkizunaren aurka mailegatzten du, hazkunde ekonomiko etengabeak zorrak eta interesak ordaintzea ahalbidetuko duen itxaropenez. Horren azpian ekonomialariek ekonomia erreala deritzotena edo ekonomia produktiboa dago. Nahikoa hazten ez denean, zorrak ordaintzeke gelditzen dira. 2008an, zor piloa BPGren hazkundeari esker ordain zitekeena baino askoz gehiago hazia zen. Ikuspegi finantzariotik, egoera eutsiezina zen.

Baina ikuspegi ekologikotik ere BPG eutsiezina zen, hirugarren mailan, ekonomialarien ekonomia errealararen azpian, ekonomialari ekologikoen bene-benetako ekonomia baitago, hau da, eragile ekonomikoen nahiz muga fisikoen mende dauden energia eta material fluxuak.

UZKURDURA EKONOMIKOA ETA KARBONO CO2 IGORPENAK

Kontabilitate ekonomikoak ez ditu ingurumen kalteak eta berriztagarriak ez diren bitartekoen balioa ondo neurtzen. Krisialdi ekonomikoak CO₂ igorpenen joera aldatzea eragin du, Mendebaldeko herrialdeetan behintzat. 2008az aurreko bost urteetan, gizakiek eragindako CO₂ igorpenek urteko %3ko igoera izan zuten. Kyotoko (1997) helburua oso eskuzabala da herrialde aberatsekin karbono isurbideen (itsasoen eta landaredia berriarren) nahiz atmosferaren gaineko jabego eskubidea ematen baitie, 1999tik 2010era igorpenak %5 jaisteko promesaren truke. Krisialdi ekonomikoak asko erraztuko du Kyotoko helburu apal hori betetzea. Karbono igorpenen salerosketa erabat desagertuko da, herrialde aberatsek beren burua igorpenak Kyotok eskatu baino neurri handiagoan murriztera behartzen ez badute. Aire garraioa, etxebizitzaren eraikuntza, autoen salmenta jaisten ari dira Europako hainbat herrialdeetan eta AEBn. Ongi etorria krisi ekonomiko!



KONTABILITATE EKONOMIKOA OKER DAGO

Koralezko uharrietako edo mangladietako ingurumen zerbitzuak hektareako eta urteko dirutan kalkula daitezke, eta, orduan, galdutako hektareak galera ekonomiko birtual bihur daitezke, herritarrek eta kudeatzaile publikoak hunkitzeko. Ez dago gaizki, baina ez da nahikoa ekonomiaren eta ingurumenaren arteko erlazioez jabetzeko, gure ekonomia industrialaren energia hornikuntza ez baitago egungo fotosintesiaren mende, duela milioika urteko fotosintesiaren mende baizik. Baliabide biogeokimikoak ordezkatu gabe xahutzen ari gara, sortzeko behar dutena baino askoz ere erritmo biziagoan.

Petrolio erauzketaren gailurrera iritsi gara beharbada, edo aurki iritsiko gara. Gaur egun, eguneko 87 milioi upel erauzten dira. Kaloriatan, munduko batez bestekoa pertsonako eta eguneko 20.000 kcal izango lirateke (hamar bider elikaduraren energia), eta AEBetan 100.000 kcal pertsonako eta eguneko.

AEBetako eta Europako hainbat bankuren nazionalizazio partzialak porrot kate geldiezina saihestu du, baina horrek defizit publikoa areagotuko du. Defizit horrek krisialditik irteten laguntzen du, eta helburu sozial eta ekologikoetara bidera daiteke. Baina Zor Publikoak hazten jarraitzen badu (azken 20 urtetan Japonian bezala), zorra ordaintzeko ezintasuna edo inflazioa eka-



Baina ikuspegi ekologikotik ere BPG eutsiezina zen, hirugarren mailan, ekonomialarien ekonomia errearen azpian, ekonomialari ekologikoen bene-benetako ekonomia baitago, hau da, eragile ekonomikoen nahiz muga fisikoen mende dauden energia eta material fluxuak”

riko du. Hazkunderari esker ordaintzea lortuko dela pentsa liteke, baina hazkunde hori desmaterializatua al da? Finantzek ekonomia errealean eragiten dute, eta honek *bene-benetako* ekonomian.

Hipoteka kredituen burbuilak eta beste kreditu mota batzuek ekonomia erreala eta, ondorioz, petrolioaren eta beste lehengai batzuen eskaera haziarazi zituzten. Izan ere, lehengaien prezioaren igoera krisiaren beste arrazoietako bat izan zen. Petrolio eta beste lehengai batzuen prezioa asko igo zen 2008ko uztaila bitartean, batetik, erosketa espekulatiboengatik, baina baita munduko ekonomia errearen hazkundeagatik ere. Herrialde aberatsen etengabeko erronka material eta energia gutxiago erabilita ekonomikoki haztea da. Edo, bestela, lehengaien prezioak jaitsaraztea. Eta horixe gertatzen ari da 2008ko amaieran, krisialdian eskaerak behera egin duelako.

LEHENGAIEN BOOMAREN AMAIERA

Krisialdi ekonomikoaren ondorioz, energia eta materialen esportazioek zabaltzeari utziko al diote, erauzketaren mugetan presio suntsitzailea murriztuz?

Latinoamerikako esportazio plana handiak nagusiki Brasilgo Lula presidentek babestu zituen. Egia da esportazioen *boomak* Lulari dirua eman

ziola ekimen sozialetarako. Baina lehengaiak esportatzeko obsesioak ez zion utzi ezer egiten Amazoniako basogabetzea geldiarazteko. Zein izango da Lularen eta Latinoamerikako ezkerren estrategia 2008ko krisiaren ondoren?

Islandiaren finantza *boomaren* zati bat aluminio galdaketaren neurritz kanpoko hazkundera xede zuten atzerriko inbertsioetan oinarritu zen. Ekologistek instalazio horien aurka egin zuten, kontu ekonomikoetan onartu gabeko kalteak eragingo zituztelako ingurumenean. Islandiako ekonomia 2008an gelditu zen, bankuek ezin zituzten gordailuak itzuli eta nazionalizatu egin zituzten.

1920ko hamarkadan, *commodityen* prezioek behera egin zuten 1929a baino urte batzuk lehenago, baina orain *commodityen* prezioen igoerak 2008ko uztailera arte iraun du, enpresen akzioak jaisten hasi eta hilabete batzuk geroago arte. Orain prezioak jaisten ari dira. Salgaien itsas garraioaren prezioak neurtzen dituen Baltic Dry Index delakoa gainbehera ari da 2008ko uztailetik, besteak beste, Txinaren burdina inportazioek behera egin dutelako. Europa eta AEBko automobil fabrikak produkzioa murrizten ari dira 2008 urtearen erdialdetik. Hori guztia ona izan daiteke ingurumenearentzat, langabeziak gora egin arren: herrialde aberatsetan sozialki iraunkorra izango den uzkurdua ekonomikoa ahalbidetuko duen berregituraketa soziala behar da.

POBREEN BPG

Ohiko kontabilitate ekonomikoa oker dagoela ulertu behar da, eta beste argudio bat emango dut. Pavan Sukhdev, Pushpam Kumar y Haripriya Gundimediak ikerketa proiektu bat burutu zuten Indian, basoetako produktu ez-komertzialei (tribuentzako edo nekazarietako egurra eta elikagaiak, uraren eta lurzorua atxikipena, sendabelarrak, CO₂ xurgatzea) balio ekonomikoa emateko, eta, gero, esperientzia horrek TEEB (Ekosistemen eta Biodibertsitatearen Ekonomia- ingelesezko siglak) proiektu europarrantzat



(Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak eta Alemaniako Ingurumen Ministerioak babestua) baliagarria izan zen. TEEBk narmentzen duenez, ur garbi, egur, larre edo sendabelarren eskuragarritasun naturalak eskaintzen dituen zerbitzuak dirutan adierazteak, ez du benetan neurtzen elementu horiek pobreen bizimoduari egiten dioten funtsezko ekarpena.

Demagun meatze enpresa batek Indiako herrixka bateko ura kutsatzen duela. Familiak erreka eta putzuetako urez hornitu beste erremediorik ez dute. Nekazarien soldata eguneko euro bateko da, eta botilaratutako ur litro batek 15 zentimo balio du. Pobreek ura erosi behar badute, soldata guztia, besterik gabe, uretan xahutuko lukete. Halaber, erregai gisa erabiltzeko egurrik edo simaur lehorrik ez badago, 14 kg-ko butano zilindroa erosteko pertsona baten asteko soldata gastatu behar dute. Beraz, naturak pobreen biziraupenari

egiten dion ekarpena ez dago ondo adierazia, Indiako BPGren %5 dela esanez gero. Biziraupen kontua da. Urik, egurrik, simaurrik eta ganadua-arentzako larrerik gabe, pobretutako jendea, besterik gabe, hil egiten da.

BPGren hazkundeak ingurumenari egiten zaion kaltea merezi al du? Indian egiaztatu zutenez, basoen biodibertsitatearen eta horien ingurumen zerbitzuen onuradun nagusiak pobreak dira, eta hori galtzeak dagoeneko oso ahuldua dagoen pobreen ongizateari eragingo lioke. Ingurumen zerbitzuen galerak neurritz kanpoko eragina dute pobreen “biziraupen irabazietan”, beste gizarte klaseekin alderatuta. Eta hortik dator “pobreen BPG”aren ideia. Bestela esanda, meatzaritzak erreka ura kutsatzen badu, pobreek ezin dute botilaratutako urik erosi, dirurik ez dutelako. Beraz, nekazari pobreek, meatzaritza proiektu batek edo industria eremu handi batek beren bizi-



Beraz, naturak pobreen biziraupenari egiten dion ekarpena ez dago ondo adierazia, Indiako BPGren % 5 dela esanez gero. Biziraupen kontua da. Urik, egurrik, simaurrik eta ganaduarentzako larrerik gabe, pobretutako jendea, besterik gabe, hil egiten da

raupena kolokan jartzen duela ikusten dutenean, maiz protestara jotzen dute, ez ekologistak direlako, bizitzeko naturaren zerbitzuak behar dituztelako baizik. Hori da “pobreen ekologismoa”.

AKTIBO TOXIKOAK ETA PASIBO POZOITSUAK

Ordainduko ez diren zergen gaineko aktiboei “aktibo toxiko” izen bitxia ipini zaie egungo krisialdian. Hala, banku hartzekodun batek hipoteka mailegu bat ematen du, balantzean aktiboan jartzen du, zordunak hipoteka nekez ordainduko duen arren eta kreditua babesten duen etxebizitzaren merkatuko prezioa jaitsi arren. Egunen batean, bankuak aktibo hori ezabatu beharko du edo balio txikiagoa eman beharko dio.

Enpresen balantzeen alde pasiboan, egungo kontabilitate arauak ez dute ingurumenari egindako kalteak kentzera behartzen. Hain zuzen, egungo ekonomiak “karbono zor” izugarria du etorkizuneko belaunaldiekiko eta gure belaunaldiko herri pobreekiko. Klima-aldaketaren ondorioak jasango dituzte, klima-aldaketan oso eragin txikia izan badute ere. Erauzketa sektoreko enpresa pribatu askok ere ingurumen pasibo handiak dituzte. Chevron-Taxaco enpresari 16 mila milioi dolar eskatu dizkiote Lago Agrion (Ekuador). Zorrrak pertsona pobreekin edo indigenekin dituzte. Shell enpresak Niger ibaiaren deltan pasibo es-

kergak ditu ordaintzeke. Baina enpresa horietako akziodunek ez dute zertan kezkatu. Zor pozoitsu horiek historia liburuetan jasota daude, baina ez kontabilitate liburuetan.

BALIO ANIZTASUNA

Erabaki ekonomikoak hobeak izango lirateke, ohiko kontabilitatean oso prezio baxua duten edo preziorik ez duten ingurumen baliabide eta zerbitzuak dirutan balioetsiz gero, baina ez ditugu beste alderdi batzuk ahaztu behar. Lehenik, ekosistemen funtzionamenduari, onarpen mugei eta erresilientziari buruzko ezagutza zehazgabea da. Bigarrenik, erabakietan garrantzia eman behar zaie monetarioak ez diren balioei, alegiazko salgaien fetixismoan erori gabe. Adibidez, gogora dezagun Dongria Kondh herria bizi den Niyamgiri muinoa (Orissa) mehatxatuta dagoela. 2008ko bigarren erdian aluminioaren prezioa %50 jaitsi izanak, eta, beraz, bauxitaren prezioak ere behera egin izanak mendi sakratua salbatzen lagunduko du agian. Edonola ere, galdera hau egin dezakegu: zenbat bauxita tona balio du tribu batek edo galbidean dagoen espezie batek? Nola adieraz daitezke balio horiek, Finantza ministro batek eta Auzitegi Goreneko epaile batek ulertzeko moduan? Indigenen eta nekazarien balioespen lengoiaik isilarazi egiten dira, diru balioespenaren lengoiairen mesedetan. Finean, galdera hau egin geniezaioke Dongria Kondh herriari: zer prezio du zuen Jainkoak?

Beraz, kontua ez da balio ekonomikoa soilik benetan existitzen diren merkatuetan zehazten den ala ez, ekonomistek ingurumen zerbitzuak eta ondasunak dirutan balioesteko metodoak jorratu baitituzte. Ingurumen gatazka bati dagozkion ebaluazio guztiak neurri komun batean, diruaren dimentsio bakarrean bildu behar diren ala ez da kontua.

Nork du balioespen lengoiaia jakin bat beste gainetik inposatzeko eta, beraz, konplexutasuna sinplifikatzeko boterea? Munduko mugimendu kontserbazionistak ohiko kontabilitate ekonomi-

koa kritikatu behar du, eta kontabilitate hori zuzentzeko eskatu behar du, gizakien eta naturaren arteko harremanak hobeto jasotzeko, baina beste balioespen lengoaiak ere zilegi direla ahaztu gabe: lurralde eskubideak, ingurumen eta gizarte justizia, giza biziraupena, eta sakralitatea.

Zientzia ekonomikoak ekonomia kontsumitzaileen eta ekoizle eta enpresen arteko zaldikomaldikoa bailitza ikusten du. Prezioak merkatuetan sortzen dira produkzio eragileen salgaiak trukatzean edo zerbitzuak erostean. Irabazien zati bat aurreztu egiten da, eta enpresek inbertsio ondasunak erostea finantzatzen du. Estatuak zergen bidez dirua ateratzen du, eta horrekin inbertsio publikoa eta kontsumo publikoa ordaintzen ditu (eskolak, osasungintza, defentsa eta segurtasuna). Kontabilitate makroekonomikoak (BPGren kalkuluak) kantitateak prezioez biderkatuta jasotzen ditu. Hori da baliabideak agortzen direla edo kutsatu egiten dela ahaztuta duen Krematistika, etxeko langileen edo boluntarioen ordaindu gabeko zerbitzuak ahazten dituen moduan.

Aitzitik, ekonomia beste modu batean deskriba daiteke, energiak eta materialak (ura barne) produktu eta zerbitzu baliagarri, eta, azkenik, hondakin bihurtzen dituen sistema gisa. Horixe da Bioekonomia eta Ekonomia Ekologikoa. BPG adierazle sozial eta fisikoez ordezkatzeko garaia da. Nicholas Georgescu-Roegenek duela 30 urte planteatutako *décroissance soutenable* edo sozialki iraunkorra den uzkurdua ekonomikoak herrialde aberatsen agenda politikoko gai nagusia izan behar du orain.

Krisialdi ekonomikoak aukera bat ematen du. Ohiko hazkunde ekonomikoa amesteari utzi (zorak ordaintzea ahalbidetuko liekeena), eta material nahiz energia gutxiago erabiltzeko trantsizio sozio-ekologikoan sartzeko garaia da herrialde aberatsentzat (zor handiak ordaintzeke utzita). Gizarte instituzioak “sozialki iraunkorra den uzkurdua ekonomikoaren” aldekoen proposamenen arabera berregituratzeko aukera eman behar



Krisialdi ekonomikoak aukera bat ematen du. Ohiko hazkunde ekonomikoa amesteari utzi (zorak ordaintzea ahalbidetuko liekeena), eta material nahiz energia gutxiago erabiltzeko trantsizio sozio-ekologikoan sartzeko garaia da herrialde aberatsentzat (zor handiak ordaintzeke utzita)

du krisiak. *La décroissance est arrivée*. Herrialde aberatsen helburu sozialak hazkunde ekonomikoa alboratuta ondo bizitzea izan behar du. Gainera, badirudi zoriontasuna ez dela handitzen diru-sarrerera maila batetik aurrera. Hau da “erlazio ondasunek” ondasun materialek baino garrantzi handiagoa hartzen dute: Castoriadis-en hitzetan, “gehiago balio du lagun berri batek Mercedes Benz berri batek baino”.

Eta Iparraldean nahiz Hegoaldean, elkartasunezko ekonomia ekologikora bidean, biztanleriaren hazkundera geldiarazteko borondatea behar da. Planeta (gizakiak nahiz gainerako biztanle bizidunak) hobeto egongo litzateke 4 edo 5 mila milioi pertsonekin, 8 edo 9 milioi pertsonekin baino, hazkunde ekonomikoarentzat kaltegarria izan arren. Edonola ere, hazkunde ekonomikoa gaizki neurtua dago.

Lehen begi kolpean, badirudi Hegoaldeari kalte egiten diola Iparraldea ez hazteak, esportaziorako aukera murrizten delako eta Iparraldeak ez dituelako kredituak eta laguntzak eman nahiko. Baina, hain zuzen, ingurumen justiziaren eta ekologismoaren aldeko Hegoaldeko pobreen mugimendu biziak dira sozialki iraunkorra den uzkurdua ekonomikoaren aldeko Iparraldeko mugimenduaren aliatu onenak. ■





Aktualitatearen alde ezberdinak
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea